

EUSKARAREN UDAL PATRONATUKO GOBERNU KONTSEILUARI:

2007ko otsailaren 12an onartu zituen Euskararen Udal Patronatuko Gobernu Kontseiluak “Donostiako euskaltegiertzako diru laguntzak 2007” arautzen dituzten oinarriak.

Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko zehaztutako irizpideak kontuan harturik, euskaltegiertzako emakidak zehaztu eta proposatu dira, oinarrietako 11. artikulua araberako zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak dagokion txostena egin du. Espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostenaren argitan izapidegileak behin-behineko proposamena egin du. Oinarri orokorretako 11 artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iriztitako alegazioak aurkezteko. Aipatu epean ez da alegaziorik aurkeztu beraz, behin-behineko ebazpen proposamena behin betiko bihurtu da.

Horregatik guztiagatik, zuzendaritza honek, Euskararen Udal Patronatuko Gobernu Kontseiluari ondoko erabakiak onets ditzan proposatzen dio.

ERABAKIAK

1.- Ondoren zerrendatzen diren euskaltegiei diru kopuru hauek ematea onestea:

1. Altza-Urumea (Gernika 21).....	8.797,39 €
2. Amara Berri aek.....	2.578,58 €
3. Antigua aek.....	2.051,10 €
4. Irrintzi aek.....	2.270,92 €
5. Rikardo Arregi aek.....	3.464,71 €
6. Hitzez.....	4.958,26 €
7. Ilazki.....	11.038,78 €
8. Legazpi 6.....	6.105,56 €
9. Monpas Berri.....	1.054,19 €
10. Urrats.....	7.733,51 €

2.- Diru laguntzen oinarrietako 15. Artikuluan adierazitakoarekin bat, interesatu guztiei erabakia jakinaraztea eta ordainketa era honetan egitea: diru laguntzaren %75 diru laguntzaren emakida onartzen denean eta gainerako %25a diru laguntza zuzentzeko dokumentazioa aurkeztu ondoren; aipatu dokumentazioa 2007ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar da.

3.- Guztira, 50.053€-ko diru-kopurua erabiltzea eta kopuru hori Euskararen Udal Patronatuaren 2007ko aurrekontuaren 480.01 kontu sailari egozte.

Donostian, 2007ko uztailaren 20an

EUSKARAREN UDAL PATRONATUAREN ZUZENDARIA

iz.: Edurne Otamendi Garmendia

o.e.

EUSKARAREN UDAL PATRONATUAREN LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA

iz.: Ainhoa Beola Olaziregi